

# BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

## CAF enpresak euskara gehiago erabiltzeko planari ekin dio Beasaingo lantegian

Tren eta metro sistementzako bagoiak noranahi saltzen dituen Beasaingo CAF enpresak -azken hiru urteotan Amsterdam, Argentina, Bilbo, Hong Kong, Londres, Mexiko hiriburu eta Monterreyko sistemak hornitzeko kontratuak irabazi dituenak- plan berri bati ekin dio enpresa barruan euskararen erabilera

areagotzeko. 1990ean hasi ziren lehen harremanak CAF eta HPINen artean. Idazkaritzak lan mundurako hitzarmenpeko proiektu pilotuen taldean sartu zuen CAF proiektua, HABErekin elkarlanean eta Elhuyarren lankidetzarekin.

1.500 langile batera euskalduntzea ia ezinezkoa izanda, enpresaren gune bat hautatu zuten plana

gauzatzeko, IV Dibisioko Akabera eta Elektrikoen sekzioek osatzen dutena, ondoren pixkanaka enpresa osora zabalduz joateko. Sekzio horietan produkzio-prozesuaren amaierako faseaz arduratzen diren 291 langilek egiten dute lan.

### 248 langile euskara ikasten

Euskara ikasteko plan hau borondatezkoa da, lanorduetatik kanpo ikasten dute eta orduko ordaintzen zaie. Baldintza hauetan 248 langilek baietz esan zioten planari, hauetatik 136 euskaldunak eta 112 erdaldunak. Euskararik ez dakiten 45 urtetik gorakoak kenduta, langileen %90ek baietz esan zuten.

### Helburuak

Egitasmo honen helburua lan harremanetan, bai ahoz, bai idatziz, euskara gero eta gehiago erabiltzea da. Bi multzo egin dira. Euren lanerako oinarritzko maila bereganatzea nahikoa dutenak eta beren laneko zereginengatik maila jasoagoa behar dutenak.

### Komunikazio-zirkuluak

Euskaraz dakitenek eta ez dakitenek trebakuntza saioak egingo dituzte. Saio horietan zeregin bera edo antzerakoa duten langileak bildu eta betiko lana euskaraz egiteko dituzten arazo eta kezak aztertuko dituzte, hizkuntza teknikariaren laguntzarekin. Ondoren, lan hori euskaraz egiten ikasi, trebatu eta lantokian gauzatzen saiatuko dira.

### Batzorde koordinatzailea

Sekzio guztietako kide bana, dibisio-burua eta hizkuntza teknikariak osatua, egitasmoaren jarraipena, koordinazioa eta sustapena egiteko sortu zen. Aste birik behin biltzen da.

Urtarrilean hasitako gune honen lana bukatutakoan, bi urte barru edo, beste gune bat hartu eta antzerako bidea urratuko da, harik eta enpresak euskaraz lan egin arte.



Euskalduntze plana Akabera eta Elektrikoen sekzioetan hasi da.

# Andres Arizkorreta, enpresari euskaltzalea

Andres Arizkorretak, 38, Ekonomia eta Enpresa Zientziak ikasi zituen Deustuko Unibertsitatean, trenak egiten dituen

CAF enpresan sartu aurretik. Pertsonal buru izan da, Beasaingo lantegiko zuzendari (CAFek Irunen eta Zaragozan ere lantegiak ditu) eta gaur egun CAFeko zuzendari orokorra.

Donostiar honek zerikusi handia du bere enpresaren zabalkunde arrakastatsuekin. Munduko beste enpresa askorekin lehian, azken hiru urteotan sekulako kontratuak irabazi ditu Amsterdam, Argentina, Bilbo, Hong Kong, Londres, Mexiko hiriburu eta Monterreyko metro edo tren sistemak hornitzeko.

Baina hor ez da bere konpromezua bukatzen, CAFeko zuzendari

orokorra erabat konprometitua baitago enpresako euskararen normalkuntzarekin. "Euskara gure estrategiaren barruan sartzen da",



Andres Arizkorreta

azaltzen du, "konpetitiboak izateko langileak gure helburuekin identifikatu behar dira. Baina hori lortzeko, gu ere jendearekin identifikatu behar gara. Ez da normala Beasainen ditugun langileen %52 euskaldunak izanda, lan guztia gaztelaniaz egitea". Horregatik CAF euskalduntzeko plana, beti ere alde guztien

adostasunarekin. Eta horregatik Elhuyar Zientzia eta Teknika Sariak eta Beasaingo Udalarekin batera Igartza abentura eta misteriozko nobela lehiaketa bultzatzen du..

Berak ere, erabat ahaztu ondoren, euskara ikasi behar izan zuen berriz ere. Predikurik onena, exenpluarena.

## Euskal liburuak Iparralderako

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 3.200.000 pta jaso ditu Europako Batasunetik, hizkuntza gutxiengotuak sustatzeko erakunde biek iaz sinatu zuten itunaren lehen ordainketaren barruan. Kultura Sailak gaur egungo euskal literaturaren 234 titulu hautatu ditu eta jasotako diruarekin bakoitzatik 22 ale erosiko dizkie Euskal Herriko 17 argitaletxeri, Ipar Euskal Herriko 22 udal liburutegitan doan banatzeko. Neurri honekin euskarazko liburugintzari lagundu eta irakurketa piztu nahi da.

Urtebeteko iraupena duen itunak Europako hizkuntza gutxiengotuak sustatzea du helburu. Europatik 4.200.000 pta jasoko dira, bi zatitan. Itunaren iraupena amaitu aurretik Kultura Sailak txosten bat aurkeztuko du Bruselan proiektuaren emaitzen berri emanez.

**B eredua Lasarte-Orian.** Lasarte-Oriako Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeek *OHOk B Eredua Ertainetan? II* liburua argitaratu dute. Helburua hauxe izan da: Lasarte-Oriako ikastetxeetan B ereduan ikasten ari diren 8. mailako ikasleen euskara gaitasuna behatu eta deskribatzea, irakaskuntza ertainetan euskaraz jarraitzeko gai diren edo ez argitzeko.

**Donostiako Euskaldunon Gida.** Donostiako Euskararen Udal Patronatuak *Donostiako Euskaldunon Gida 1995* liburua eman du argitara Argitalpen honen bidez, Donostian aurki daitezkeen euskarazko zerbitzuak zeintzuk diren eta non aurkitzen diren jakinarazi nahi izan die Donostiako Euskararen Udal Patronatuak euskaraz bizi nahi duten eta horretan saiatzen diren donostiar guztiei.

**Euskara eta gazteak Lasarte-Orian.** Joxe Mari Iraola soziologoak *Euskara eta Gazteak Lasarte-Orian. Hizkuntz Jokaerak* liburua idatzi du eta bertako udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratu du. Lasarte-Oriako gazteei egindako inkesta soziologikoan oinarriturik dago eta bere helburua euskarak gazte hauen artean bizi duen egoera ezagutzea da.

**Iurretako euskara eta toponimia.** Alberto Errazti filologo eta irakasle arrasatearrak *Iurretako Elizateko Euskara eta Toponimia* liburua argitaratu du Iurretako Udalaren eta Gerediaga Elkartearen laguntzarekin. Hizkuntza eta toponimia izan dira egilearen ardura nagusiak. Fonetika, Fonologia, Morfosintaxia eta Toponimia aztertzearekin batera, hainbat iurretarren kontakizunak ematen ditu.

# Famili Zuzenbideko Formularioak euskaraz

Gipuzkoako Abokatuen Kolegioko Euskara batzordeak *Famili Zuzenbideko Formularioak* jasotzen dituzten liburua eta disketea argitaratu ditu. Lan honetan banaketa, dibortzio, ezkontza zibilaren eta kanonikoaren deuseztasun zein adiskidetze kasuetan epaitegietan erabiltzen diren 124 formulario bildu dira, euskaraz eta gaztelaniaz. Bukaeran gai horien inguruko euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara lexikoa jasotzen da. UZEIk euskaratua, Luis Aldayk zuzendu du.

Liburuarekin batera diskete bat dator euskarazko bertsioarekin, IBMrekin bateragarriak diren ordenadoreetan erabiltzekoa, MS-DOS sistema eragilearekin.

Liburua eta disketea doan banatuko dira Gipuzkoako abokatuen artean, baita Euskal Herriko gainerako kolegioetan ere. Abokatu berriei ere, elkarteetan sartu ahala, emango zaie. Ez dira salgai jarriko, beraz.

Gipuzkoako Abokatuen

Kolegioko Euskara batzordeak argitaratzen duen bigarren liburua da hau. Lehen *Eskumen Sozialeko eta Lan-administrazioko Formularioak* izan zen. Bietan helburua euskararen normalizazioa da, bai epaitegietan, abokatuen lanean, zein atxilotuen asistentzian. Datorren urtean beste liburu bat argitaratu nahiko luke, auzi zibilei buruz.

Lan hau guztia Gipuzkoako Abokatuen Kolegioaren barnean orain bederatzirte sortu zen Euskara batzordeak bultzatu du. Oraingoz lau lagunek osatzen dute batzordea, baina geroz eta abokatu gazte gehiagoren laguntza ari dira jasotzen. Bere helburuak hauek dira: urtero horrelako lan bat argitaratzea, atxilotuei asistentzia euskaraz bermatzea, kolegiatu berrientzako praktikak euskaraz ere prestatzea eta Gipuzkoako Abokatuen Kolegioaren barruan ere euskararen erabilera bultzatzea. Tfnoa.: (943) 42 16 59.

## Euskaltzaindia.

Frantziako Gobernuak Euskaltzaindia onura publikoko erakundetzat ezagutu du lehen aldiz. Errekonozimendua ofiziala denez gero, aurrerantzean Parisko gobernuaren dirulaguntzak jaso litzake. Orain arte Euskaltzaindiak elkarte estatusa zuen Frantzian.

## Bilboko Gotzaindegia.

Aurrera segitzen du orain bost bat urte hiru abade euskalduntzeko hasitako ikastaroekin. Lehen esperientziak izan zuen arrakastaren ostean, hamar abadek osatzen duten bigarren taldea ari da euskara lantzen, lehen bezala, irakaskuntza igandeetako irakurgaietan oinarrituta.

## Euskal Kultur

### Erakundea.

Euskal Kultur Erakundeak urteko biltzar nagusia egin zuen Donibane-Garazin. 1995erako dituen egitasmo nagusiak onartu ziren. EKEk Iparraldeko 71 elkarte biltzen ditu eta 137 udalen laguntza du.

## Argitalpenak

### Aldizkako Argitalpenen Katalogoa 1994

HABEk argitaratu du, Donostian dagoen HABE Liburutegian dauden aldizkako argitalpenen berri emateko. Euskal Herrian eta erbestean hizkuntza desberdinetan argitaraturikoak nahasten dira. Aipatzekoa da gaien zabaltasuna. Azken katalogoan baino 150 sarrera gehiago dakartza.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako  
Idazkaritza Nagusia  
Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gazteleraz

Izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

## Galdezka


### Hizkuntza politika Araban

**G.** Araban zein da hizkuntza politikaren helburua?

**E.** Elebitasuna pausuz pausu zabaltzea, beti ere hiritarren nahia abiapuntutzat hartuta politika horren legitimazioaren irizpide nagusi moduan eta errealtate soziolinguistikoa gutxieneko abiapuntu bezala.

Hizkuntza politika hau arautzen duen lege esparrua (Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legea, Euskal Funtzio Publikoaren Legea eta Euskal Eskola Publikoaren Legea) Eusko Legebiltzarrean gehiengoa duten alderdi politikoen adostasunean oinarritzen da. Beraz, euskararen normalizazioari buruzko adostasuna eguneratzeko eztabaida politikoa gaurko hizkuntza politikaren aplikaziorako irizpideetan kokatu behar da eta ez oinarritzko printzipioetan.

Eztabaida hiru esparru nagusitara mugatzen da nagusiki: hezkuntza, administrazioa eta gizartearen erabilera.



**Jose M. Zeberio**  
Hizkuntza Politikarako  
idazkari nagusia

## Sokrates egitasmoa Europan

Orain arte indarrean zeuden hainbat egitasmo (*Erasmus, Lingua, Eurydice, Arion* eta *Naric*) bilduz, Europako Batasunak Sokrates egitasmoa sortu du 1995-1999 urteetarako. Egitasmo honen helburua hauxe da: komunitateko partaideen elkarlana indartuz, berrikuntza sustatu eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzea. 1991-1992 ikasturtean komunitateko beste estatu batean ikasten ari ziren goi mailako irakaskuntzako ikasle europarren portzentaia %5ekoa bazen, 1999rako kopuru hori bikoiztu nahi da. Horretarako Sokrates egitasmoak 168.940 milioi pezetako aurrekontua du.

Sokrates egitasmoak hiru maila ditu:

- *Erasmus*, goi mailako

irakaskuntzan. 96.482 milioi ptako aurrekontua du. Ikasleen eta irakasleen mugikortasuna erraztu nahi du. Hiru hilabete eta urtebeteko egonaldiak ahalbidetuko ditu elkarteko beste estatu etako edozein unibertsitatetan. Zabalkunde gutxiko hizkuntzak dituzten ikasle eta irakasleei laguntza bereziak emango zaizkie.

- *Europa Eskolan*, eskola mailako irakaskuntzan elkarlana sustatzeko. 33.130 milioi ptako aurrekontuarekin. Estatu desberdinetako eskolen arteko irakaskuntza proiektu amankomunak sustatzea du xede.

- *Lingua*, hizkuntzen ezagutza hobetzeko, murgiltze programak erabiliz. 39.328 milioi ptako aurrekontua du.

## ✓ Kontutan hartzeko

### • Euskara Betiko Mintzoa erakusketa.

Nafarroako Gobernuak antolatuta, *Euskara Betiko Mintzoa* erakusketa herriz herri ibiliko da Nafarroan zehar. Euskarak Nafarroako historian zehar bizi izan dituen gorabeherak, euskalduntze prozesua eta euskararen etorkizuna azaltzen ditu erakusketak, Nafarroako toponimiarekin batera.

### • UEMA eguna

**Bermeon.** Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak bere urteroko jaia ospatuko du Bermeon maiatzaren 7an. Bermeo da, hain zuzen, UEMA sartu den azken herria eta mankomunitateko herririk handiena aldi berean. Jaia eguerdian hasiko da udaletxean. Ondoren, bertsolariak, dantzariak eta 500 lagunentzako bazkaria izango dira.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

